

Erref.- FMR / Legelari Aholkularia

Proposamena: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza

---

**GAIA.- ERABAKI-PROPOSAMENA, ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO PROZESUAREN BIDEZ 2022. URTEKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZARI DAGOZKION HAUTAKETA-PROBEN DEIALDIAK ONARTZEKO, ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAN AURREIKUSITAKOAREN BABESEAN.**

**EGITATEAK.-** 2022ko maiatzaren 20an, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak erabaki zuen Foru Erakundearen 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea, egonkortze-plazei zegokiena, ezohiko eta salbuespenezko izaerarekin, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera. Eskaintza hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko maiatzaren 30ean.

Deialdi horiek GUFEn ordezkaturako sindikatuekin negoziatu dira, 2022ko 7., 8., 9., 10., 12. eta 13. zenbakiko Negoziazio Mahaiaren aktetan.

**KONTUAN HARTZEKOAK.-** Maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluko 6. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, GUFeko Gobernu Batzordearen eskumena da langileak hautatzeko oinarriak onartzea.

Ondorioz, sinatzen duenak Gobernu Batzordeari honakoa aurkezten dio:

### ERABAKI-PROPOSAMENA

**Lehena.-** Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintzarekin bat etorritik (2022ko maiatzaren 20ko Erabakiaren bidez onartua), enplegu publikoa egonkortzeko prozesuaren bidezko hautaketa-probetarako deialdia xedatzea, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera, dagozkien eranskinetan agertzen diren eta lehiaketa-prozedurari dagozkion lanpostuak betetzeko.

**Bigarrena.-** Deialdi horiek arautuko dituzten Oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea. Oinarri horiek Erabaki honen eranskin gisa gehitu dira, jasota gera daitezen.

**Hirugarrena.-** Oinarriak, osorik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea; eta laburtuta, Estatuko Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta GUFEn web-orrian.



Laugarrena.- GUFeko gerente jn. gaitzea, deialdi hau izapidetzeko behar diren ebazpen guztiak har ditzan.

Bilbon, 2022ko azaroaren 28an

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Eneko Gutiérrez Coterón', written over the text 'ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA'.

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'David Latxaga Ugartemendia', written over the text 'GERENTEA'.

Sin.: David Latxaga Ugartemendia